PROGRAMAREN DATU OROKORRAK

Departamentua: 06 - MUGIKORTASUNEKO, TURISMOKO ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO
Atala: 0620 - Turismo Zuzendaritza Nagusia
Programa: 200 - Turismo eta lurralde irudia
Funtzionala: 432 - Informazio turistikoa eta turismoaren sustapena

Programa mota:

Finalista

Misioa:

Lurralde osoan ongizatea, enplegua eta aberastasun partekatua sortuko duen turismo-eredu jasangarria, orekatua eta inklusiboa bultzatzea, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bermatuz, turismoaren garapenean askotariko parte-hartzea bultzatuz, masifikazioa saihestuz eta berezko kultura-berezitasunari balioa emanez, beste kultura, hizkuntza eta bizimodu batzuk aitortuz eta errespetatuz.

Egoeraren diagnostikoa:

Gipuzkoa da turismoak ekonomian gehien eragiten duen lurralde historikoa, BPGaren % 8arekin, eta, beraz, lurraldeak erronka bat du: turismoa industriatzat hartzea, gizartean integratuz eta horren onurak ezagutaraziz.

Beharraren deskribapen xehatua:

Gipuzkoako sektore turistikoa indartu behar da, Gipuzkoarentzat enplegua eta aberastasuna sortzen duen sektore ekonomiko erreal gisa.
Eredu iraunkor eta ordenatu bat sortu behar da lurraldearentzat, gobernantza-eredu ireki eta kolaboratibo baten bidez oinarritutako eta sortutako ikuspegi, misio eta helburuekin.
Big Data ondo erabiltzean eta balio erantsia ematen duten teknologia berrietan oinarritutako turismo adimendunaren eredu bat diseinatzea, gipuzkoarren eta bisitarien onurarako.

Nori zuzendua:

Gure geografian, gastronomian, hizkuntzan eta kulturan interesa duen turista, jasangarria bai gizartearen ikuspegitik bai ingurumenarenetik; gipuzkoarrak; sektore turistiko pribatua; eskualdeko turismo entitateak; udalak;

Programaren estrategia.

1. Baliabideak (inputak):

Donostian dagoen Gipuzkoako turismoa sustatzeko eta dinamizatzeko zerbitzua (HUB), giza baliabideak, baliabide materialak, finantza baliabideak, teknologikoak (sare sozialak, web orrialdea, etab.) eta asistentzia teknikoa.

2. Garatu beharreko jarduerak/prozesuak:

Lankidetzan aritzea eskualdeetako turismo agentziekin, Donostia Turismoarekin eta turismo sektore pribatuarekin.
Turismoa sustatzeko eta dinamizatzeko bulegoaren kudeaketa
Diru-laguntza kudeatzea
Hitzarmenak egin
Erreserben zentrala kudeatu eta edukiaren kontrola
Behatokia elikatzeko lankidetza

3. Ondasun eta Zerbitzuak (outputak):

Turismo marketing euskarri ezberdinak (mapak, gidak)
Turismoa sustatzeko eta dinamizatzeko bulegoa
Diru laguntzak eman
Kanpainak
Erreserben zentrala (baliabide turistikoak saltzeko web orrialdea)
Gipuzkoako Turismo Behatokia

Programaren arau esparrua:

13/2016 Legea, uztailaren 28koa, Turismoarena.
Administrazio arloko arautegi orokorra.
2/2015 Foru Araua, martxoaren 9koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa.

- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- Emakumeen eta gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana (2025-2027) Gipuzkoan.

2024-2027 KUDEAKETA PLAN ESTRATEGIKOARI LOTUTAKO DEPARTAMENTU JARDUKETA

Urteko helburua: Gaitasun eta aukera lehiakorrak sustatzea sektore ekonomikoak sendotuz edota eraldatuz eta berriak bultzatuz.

Adierazlea	Neurri-unitatea	Helburu mota	Azken balioa	Aurtengo aurreikuspena	Urteko helburua	Agintaldiko helburua
Gipuzkoan egindako gauen portzentajea behe denboraldian, urte osoaren aldean	Ehunekoa	>=	55,86	56,00	57,00	58,00
Hiriburuarekin alderatuta, turistek lurraldeko gainerako herrietan ematen dituzten gauak ehunekotan.	Ehunekoa	>=	37,40	39,00	40,00	42,00
Foru Aldundiak sustatutako berrikuntza proiektuetan onuradun diren ETEei emandako laguntzen zenbatekoa eurotan (%)	Ehunekoa	>=	87,00	87,00	85,00	85,00
Foru Aldundiaren proiektu estrategikoen esparruan sortutako edo bizkortutako enpresak	Kopurua	>=	11,00	11,00	20,00	20,00

Helburuari lotutako ekintza lerroak eta ekintzak

1. Ekintza lerroa:
Turismoaren industria bultzatzea, kalitatearen, profesionaltasunaren, bikaintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua eginez.



% 84,14



% 6,26



% 0,47



% 9,12

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
Ekintza lerroa, guztira	**3.836.040,19**	**120.000,00**		**2027/01/01**	**2028/12/31**	
1.1 Ekintza Gipuzkoako turismoaren sektorea informatzeko, sustatzeko eta dinamizatzeko gunea	198.939,39			2027/01/01	2027/12/31	

	Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak	Sarrera lotua	Hasiera data	Bukaera data	Etorkizuna eraikiz
1.2 Ekintza Hitzarmenak Gipuzkoako lurralde-izaerako turismo-erakundeekin	878.747,00			2027/01/01	2027/07/31	
1.3 Ekintza Turismo adimenduna eta ezagutza aztertzea.	235.157,16			2027/01/01	2027/12/31	
1.4 Ekintza Sustatzaile eta enpresa turistiko berriak bultzatzeko laguntzen dekretua	308.956,45			2027/01/01	2027/12/31	
1.5 Ekintza Kanpo proiekzio handiko ekitaldi turistiko garrantzitsuak babestea.	560.489,39			2027/01/01	2027/12/31	
1.6 Ekintza Gipuzkoa helmuga gisa sustatzea, bai nazio mailan, bai nazioartean, eta baita ekitaldi turistiko garrantzitsuetan ere.	304.939,39			2027/01/01	2027/12/30	
1.7 Ekintza Lankidetza hitzarmena sinatzea, Gipuzkoako turismoa dinamizatzen laguntzen duten entitateekin.	381.939,39			2027/01/01	2027/11/30	
1.8 Ekintza MICE turismoa indartu eta sustatzen laguntzea.	400.174,18			2027/01/01	2027/12/31	
1.9 Ekintza Gipuzkoan egiten diren turismo-jardunaldiak antolatzea edo laguntzea.	96.456,16			2027/01/01	2027/12/31	
1.10 Ekintza Gipuzkoa turismo-helmuga iraunkor gisa sustatzea	278.051,40			2027/01/01	2027/12/31	
1.11 Ekintza MICE ekitaldiak lagundu	50.675,05			2027/01/01	2027/12/31	
1.12 Ekintza Gabonetan hurbileko turismoa sustatzeko laguntza-programa (Hator Hator)	122.733,00	120.000,00		2027/01/01	2028/12/31	
1.13 Ekintza Gipuzkoako turismo sektoreko kolektibo profesional oso feminizatuen errealitateari buruzko azterketa-diagnostikoa egitea	18.782,23			2027/01/01	2027/12/31	

GENERO BERDINTASUNA

Programaren genero garrantzia: Ertaina

Beharraren deskribapen xehatua:

Administrazio-jardueran hizkuntza bisual eta idatzi ez-sexistaren erabilera sustatzea.
Sexuen arabera berezitako datuak eta genero-adierazleak biltzea ahalbidetzeko bitartekoak garatzea.
Genero-aurreikuspena aktibitateetan integratzea. Turismo sektorean argi eta garbi feminizatua dagoen sektorean emakumeen eta gizonen enpleguan eta enpresetan hautemandako arrakalak, batez ere, behin-behinekotasunean (hemen arrakala 31 puntu portzentualera iristen da) eta lanaldi partzialeko kontratuetan (28 puntu portzentualeko arrakala) zentratzen dira, bereziki ostalaritzan (datu-iturria: LANBIDE).

Hala ere, kultura- eta aisialdi-jardueretan behin-behinekotasuna (34 puntu portzentualeko arrakala) handiagoa da gizonen artean, eta, gainera, jarduera horietako langileen gehiengo zabala dira gizonak (datu-iturria: LANBIDE). Hori talde horren barneko sexuaren araberako bereizketa handiarekin lotuta egon daiteke (maskulinizatuak: ekoizpen teknikoa, soinua, argiztapena, ekitaldien kudeaketa, animazio- eta abentura-jarduera batzuk, kultura-industria teknologikoenak edo enpresarialenak; feminizatuak: kultura-bitartekaritza, hezkuntza, jendaurreko arreta) eta, oro har, haren urtaroko izaera nabarmenarekin (ekitaldiak, jaialdiak, kanpainak), behin-behinekotasun handiagoa azaltzen baitu.

Funtsezkoa litzateke Gipuzkoako sektoreko soldata-datuak sexuaren arabera bereizita izatea, genero-desberdintasunak identifikatu ahal izateko.

Turismo sektorean gehiengo zabala diren mikroenpresen eta enpresa txikien jabetza eta zuzendaritza (eta zuzendaritza exekutiboaren kasuan, baita enpresa ertain eta handiena ere) gizonen esku dago. Nabarmentzekoa da sektoreko mikroenpresen jabetzaren % 94 eta enpresa txikien jabetzaren % 73 gizonen esku egotea, eta enpresa mota horien zuzendaritza, hurrenez hurren, % 68an eta % 69an gizonen esku egotea. Hala ere, enpresa handi bakarra emakume batek zuzentzen du, eta hori arau orokorra berresten duen salbuespentzat hartu behar da (datu-iturria: Sabi INFORMA). Horrela interpreta daiteke bereizketa bertikalak modu metatuan jarduten duela: emakumeek, beren lan-ibilbidean erantzukizun txikiagoko lanpostuetan pilatzen direnez, kapital gutxiago dute (ekonomikoa, harremanezkoa eta esperientziazkoa) enpresak sortzeko edo eskuratzeko.

Funtsezkoa litzateke Gipuzkoan sektore honetako emakumeen ¿enpleguari eta? ekintzailetzari buruzko datuak izatea, etorkizunean genero-azterketa zehatzagoak egin ahal izateko.
Bestalde, emakume soldatapeko gehiago daude autonomo baino. Aurreko guztiak erakusten du, turismoa sektore feminizatua izan arren, paradoxikoki lan-baldintza onenak gizonen enpleguan daudela.

Berdintasun-agindu nagusiak:

Ekintza positiboa: egitezko desberdintasunak zuzentzeko neurri espezifiko eta aldi baterakoak.
Estereotipoak eta gizarte-rolak ezabatzea, sexuan oinarritutakoak.
Genero-ikuspegia duten aurrekontuak, bizitzaren zainketari eta berdintasunari lehentasuna emanez.
Langile publikoen prestakuntza berdintasunaren arloan.
Sexuaren arabera bereizitako datuak eta genero-adierazleak estatistiketan eta inkestetan.
Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua erabakiak hartzeko organoetan, bai publikoetan, bai era guztietako elkarte eta erakundeetan.
Hizkera ez-sexista dokumentu eta euskarri guztietan, norberarenetan zein hirugarrenenetan.
Berdintasun-klausulak kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan.
Turismo inklusiboa: turismoak desberdintasuna murrizten lagundu behar du (Turismo Iraunkorraren Mundu Gutuna +20; 13/2016 Legea, Turismoarena).
Gipuzkoako Turismoaren Plan Estrategikoa 2030aren jarraipena, adierazle guztiak sexuaren arabera bereizita, ahal den guztietan.

Berdintasun-helburuak

Helburuak:

Ekintza lerroak:

Berdintasuna sustatzeko programaren ekintzak

Ekintza	Aurrekontua	Programa %
Gipuzkoako turismo sektoreko kolektibo profesional oso feminizatuen errealitateari buruzko azterketa-diagnostikoa egitea	18.782,23	0,49
Guztira	**18.782,23**	**% 0,49**

Genero-ikuspegiaren integrazio-indizea:	5,50	puntu
Kuantifikazioa:	18.782,23	(% 0,47)
Ordainketa kredituak:	18.782,23	(% 0,49)
Datozen urteetako gastuak:	0,00	(% 0,00)

GJH

Beharraren deskribapen xehatua:

Turismo-sektore inklusibo eta jasangarriaren hazkundea sustatzea, langabezia-tasa murriztea, lan-baldintzak hobetzea eta lan-produktibitatea handitzea.
Gipuzkoako turismo-sektoreko eragile publiko zein pribatuekin aliantzak egitea.

Kuantifikazioa: 3.956.040,19 (% 100,00)

Programari lotutako GJH zerrenda

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	8-Lan duina eta hazkunde ekonomikoa Guztiontzako hazkunde ekonomiko jarraitua, inklusiboa eta jasangarria, enplegu betea eta produktiboa nahiz lan duina sustatzea.	**3.244.580,82**	**84.000,00**
Helburua	8.09 - 2030. urterako, turismo jasangarria sustatzera bideratutako politikak egitea eta martxan jartzea, lanpostuak sor ditzan eta tokiko kultura eta produktuak susta ditzan	3.244.580,82	84.000,00
	Ekintza lerroak		
	Turismoaren industria bultzatzea, kalitatearen, profesionaltasunaren, bikaintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua eginez.	3.244.580,82	84.000,00
	11-Hiri eta komunitate jasangarriak Hiriak eta giza kokaguneak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta jasangarriak izatea lortzea.	**211.717,14**	**36.000,00**
Helburua	11.4 - Gipuzkoako kultura-, natura- eta historia-ondarea babesteko eta zaintzeko ahaleginak areagotzea.	211.717,14	36.000,00
	Ekintza lerroak		
	Turismoaren industria bultzatzea, kalitatearen, profesionaltasunaren, bikaintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua eginez.	211.717,14	36.000,00
	15-Lehorreko ekosistemetako bizitza Lehorreko bizitza babestea, lehengoratzea eta modu jasangarrirean erabili dadila sustatzea, basoak modu jasangarrirean kudeatzea, basamortutzearen aurka borrokatzea, lurren degradazioa inbertitzea eta biodibertsitatearen galera gelditzea.	**18.782,23**	
Helburua	15.1 - 2020. urterako, lurreko ekosistemen eta ur gezaren barne-ekosistemen eta horien zerbitzuen zaintza, berrezarpena eta erabilera jasangarria bermatzea, bereziki hauena: basoak, hezeguneak, mendiak eta gune lehorrak; hori guztia, bat etorriz nazioarteko hitzarmenen bidez ezarritako betebeharrekin	18.782,23	
	Ekintza lerroak		
	Turismoaren industria bultzatzea, kalitatearen, profesionaltasunaren, bikaintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua eginez.	18.782,23	

GJH, Helburu eta Ekintza lerroak		Ordainketa kredituak	Datozen urteetako gastuak
	17-Helburuak lortzeko aliantza Ezarpen-baliabideak sendotzea eta Garapen Jasangarrirako Munduko Ituna biziberritzea.	**360.960,00**	
Helburua	17.17 - Arlo publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte zibilean aliantza eraginkorrak sor daitezen sustatzea, aliantzen baliabideak lortzeko estrategiak eta esperientzia baliatuz.	360.960,00	
	Ekintza lerroak		
	Turismoaren industria bultzatzea, kalitatearen, profesionaltasunaren, bikaintasunaren eta jasangarritasunaren aldeko apustua eginez.	360.960,00	
Guztira		**3.836.040,19**	**120.000,00**

Programaren aurrekontuaren laburpena / Resumen del Presupuesto del Programa

Gastuen kapituluak / Capítulos gastos	2026	2027	Datozen urteetako gastuak/Gastos Futuros				
			2028	2029	2030	2031 eta hurrengoak/ 2031 y siguientes	Guztira / Total
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	340.627,00	355.490,00					
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.458.550,00	1.398.550,00					
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS							
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.900.000,00	1.962.000,00	120.000,00				120.000,00
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS							
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**3.699.177,00**	**3.716.040,00**	**120.000,00**				**120.000,00**
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES	4.000,00						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL		120.000,00					
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**4.000,00**	**120.000,00**					
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS							
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS							
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras							
Guztira / Total	**3.703.177,00**	**3.836.040,00**	**120.000,00**				**120.000,00**

Planen zenbateko osoa, kapituluka / Total planes/capitulos	Ordainketa kredituak / Créditos de pago		Datozen urteetako gastuak / Gastos futuros		Guztira / Total	
	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo	Estrategikoa / Estratégico	Operatiboa / Operativo
1. LANGILERIA GASTUAK GASTOS DE PERSONAL	355.490,19				355.490,19	
2. ONDASUN ETA ZERBITZUEN GASTU ARRUNTAK GASTOS CORRIENTES EN BIENES Y SERVICIOS	1.398.550,00				1.398.550,00	
3. FINANTZA GASTUAK GASTOS FINANCIEROS						
4. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK TRANSFERENCIAS CORRIENTES	1.962.000,00		120.000,00		2.082.000,00	
5. KONTINGENTZIETARAKO ETA BESTE EZUSTEKO BATZUETARAKO FUNTSA FONDO DE CONTINGENCIA Y OTROS IMPREVISTOS						
Eragiketa arruntak, guztira Total operaciones corrientes	**3.716.040,19**		**120.000,00**		**3.836.040,19**	
6. INBERTSIO ERREALAK INVERSIONES REALES						
7. KAPITAL TRANSFERENTZIAK TRANSFERENCIAS DE CAPITAL	120.000,00				120.000,00	
Kapitaleko eragiketak, guztira Total operaciones de capital	**120.000,00**				**120.000,00**	
8. AKTIBO FINANTZARIOAK ACTIVOS FINANCIEROS						
9. PASIBO FINANTZARIOAK PASIVOS FINANCIEROS						
Finantza eragiketak, guztira Total operaciones financieras						
Guztira / Total	**3.836.040,19**		**120.000,00**		**3.956.040,19**	